

EUSKARAREN SENTSIBILIZAZIORAKO PILULA



- **OHIKO ZALANTZAK**
- **02 LITERATURA**
- **03 PAZIENTZIA**

OHIKO ZALANTZAK

Bapatean, bat-batean, batik bat, batipat... Hitzok idatzitakoan, askotan, etenaldia egitera garamatza gramatikak "Nola idazten ziren? Aldiro-alldiro zalantza berbera dut...".

- **Batik bat**
- **Behinik behin**
- **Bat-batean**

Idazkera hori bada ere, horrela **ahoskatuko** ditugu:

- **Batipat**
- **Behiepein**
- **Bapatean**



Ariketa bidez ere praktika daiteke Euskaljakintzaren [webgunean](#)

LITERATURIA

Liburu-azoka



02



- Maiatzaren 23tik 25era bitartean egingo da Zarautzen liburu-azoka.
- Aurten, *Ihes* hitza jarri dute Zarauzko liburu-azokar erdigunean, eta topagune bat eskainiko die literatura ihesbidetzat hartzen dutenei.
- Euskal letrei huts-hutsean eskainitako jaialdian, liburu azoka, solasaldiak, liburu aurkezpenak eta hainbat ikuskizunen emanaldiak bilduko dira.
- Aurten, lehen aldiz, gaztetxoentzat jarduera bat bildu dute egitarauan.





Pazientzia

Andoni Egaña

Lehendik zegoen ilara luze samarra supermerkatuko kaxan. Begiradatan antzematen zen bezeroen presa. Eta hasperenetan. Halako batean, mantso zihoana geldo bihurtu zen.

Bezero bat temati ari zitzaion kobratzen ari zen langileari. Euskaraz hasi zen eta euskaraz nahi zuen bukatu. Langileak euskaraz ez zekiela eta gazteleraz egiteko mesedez esan zionean, bezeroak ez zuen atzera egin. Abegitsu, pazientziaz, mantso-mantso eta ongi ahoskatuz hasi zitzaion bere txartelaren zenbakia esaten, hatzen imintzioaz lagundurik. Bi... lau... zazpi... Langilea, urduri, blokeatu egin zen, eta bestelako egoera batean aisa ulertuko zukeena ulertzen kosta egiten zitzaion. Ilarakoak, luzetsita, marmarrean hasi ziren mantsotzearen arrazoia zein zen ohartzean. «¡Mecaguen el Euzkaldi ese de los cojones!», bota zuen batek. Beste batek tinko erantzun zion euskaraz egitea eskubide bat dela. Eta beste bi-hiru ere sartu ziren eztabaidan.

Batzuek begitan hartu zuten langilea. Beste batzuek begitan hartua zeukaten euskara. Inork ez zuen enpresa aipatu. Inork ez zuen esan, etekinak murriztu arren bi langile jarri izan balituzte kobratzen, eta haietariko batek gutxienez euskara baleki, ez zatekeela ilararik sortuko. «Euskal Herri euskalduna irabazteko eguna, pazientzia erre aurretik behar duguna» zioen kantua. Herri honetan pazientziak badaki euskaraz...